



GIZON INDARTSUAK, EMAKUME AHULAK?



1

FILM-DOKUMENTALA IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK IRAKASLEAK IRAKURTZEKO

Fitxa Teknikoa

Sinopsia

Historiaurreari buruzko ohar batzuk

Proposamen didaktikoa lantzeko aholku metodologikoak



2

FILM-DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Filmaren izenburutik abiatuta elkarriketarako gida

Ariketa praktikoa: Aurreiritziekin jolasean. Garaiko eginbeharrak eta lanaren sexu banaketa



3

FILM-DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Solasaldia: filma berari buruzko lehen iritziak elkarbanatu

Filmak jorratzen duen testuinguru historiko eta sozialari buruzko gogoeta

Filmak jorratzen dituen gai nagusiak banan-bana landu:

- Elikadura
- Sorkuntza artistikoa
- Gatazka/Borroka
- Genero rolak - Desberdintasuna

ARIKETA taldean egiteko



FILM-DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK
IRAKASLEAK IRAKURTZEKO



FITXA TEKNIKOA

GIZON INDARTSUAK, EMAKUME AHULAK?
(*Mächtige Männer, ohnmächtige Frauen?*)

Zuzendaria: Birgit Tanner, Carsten Gutschmid

Urtea: 2019

Herrialdea: **Alemania**

Iraupena: **52 minutu**

Hizkuntza: **Ingelesa**

SINOPSIA

Gizon ehiztariak, emakume biltzaileak: horixe da gutako askok dugun historiaurreko irudia. Betidanik familiaren sostenguaren ardua gizonarengan erori denako ideia erabat zabaldua dago. Era berean, gizona, historiaren hasieratik, gizartearen maila gorenean kokatu izan ohi da. Baina aurkikuntza guztiak ez dira irudi horretara egokitzen eta iraganen egindako interpretazio asko okerrak izan zirela jakin dugu azken boladan. Izan ere, baziren emakumezko artistak Harri Aroan, printzesa aberatsak Brontze Aroan eta aizkorarekin maneatzen ziren emakumezko gudari bikingoak. Zientzia forentsean erabili ohi diren metodo zientifikoak mundu osoko ikertzaileentzat balioarriak izaten ari dira historiaurrearen ikuspegi berri bat eraikitzen hasteko.





**FILM-DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK
IRAKASLEAK IRAKURTZEKO**


HISTORIAURREARI BURUZKO OHAR BATZUK

Dokumentalak historiaurre osoa du izpide, baina bereziki Neolitiko amaieran emandako iraultzan jartzen du arreta (duela 4000 urte inguru). Izan ere, Harri Arotik Metal Arorako trantsizioan aurrerapen tekniko nabarmenak eman ziren, bereziki ehizarako tresnerian (jaurtitzeko armak, esaterako). Honek paradigma aldaketa ekarri zuen lanaren banaketan: Paleolito garaian gizon zein emakume modu primitiboan ehizara joaten baziren, erreminten sofistikazioarekin gutxi batzuk askorentzat ehizatzeke gaitasuna irabazi zuten. Dokumentalaren egileek ateratzen duten ondorio nagusietako bat honakoa da: Neolitikoko iraultzan dago gizon eta emakumeen arteko desberdintasun historikoaren jatorrietako bat, izan ere, ehiza gizonen gauza bakarrik bilakatu ahala, janaria banatzeko garaian lehentasuna irabazten joan zen, ehizarako indartsu mantendu behar zuelakoan. Modu horretan, gizonek gehien bat haragia jaten zuten bitartean, emakumeek barazkietan oinarritutako elikadura batera jo zuten. Garai honetako hezurren aurkikuntza eta analisiak tesi hori ziurtatu du, hauen tamaina eta sendotasunari erreparatuta.



Ehizarako teknikaren sofistikazioak janari gordekinak handitzea ahalbidetu zuen (nahiz eta ordurako haragi gehiena gizonek jaten zuten). Elikadura esparruan emandako hobekuntzek haurren heriotza-tasaren gutxitzea ekarri zuten eta, beraz, haurren zaintzak zama handiagoa hartu zuen emakumeen bizitzan. Honela, lanaren sexu banaketa nabarmendu egin zen eta emakumeen egoera fisikoa, elikadura, amatasuna eta zaintza lanak zirela eta, ahultzen joan zen Brontze Aroaren atarian.

HISTORIAURREA ETA HISTORIA



* Lehen agiri idatziak



**FILM-DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK
IRAKASLEAK IRAKURTZEKO**

Gauzak horrela, dena prest zegoen modelo sedentario batera pasatzeko. Hala ere, dokumentaleko aditueta batek azaltzen duen moduan, gizarte sedentarioa klimaren egonkortasunaren ondorio zuzena da, kontrako kasuan ez baitago uztak kontrolatzeko modurik. Modelo sedentarioan bi ezaugarri nabarmendu ditzakegu. Batetik, lanaren banaketa sexualaren areagotzea: gizonak ehizara joaten ziren bitartean, emakumeak haurren erditze (asko erditzeko momentuan hiltzen ziren) eta zaintzaz eta baita laborantzaz arduratzera pasa ziren. Bigarrenez, modelo sedentarioak jabetza dakar, eta, jabetzak, gatazka. Gerra egiteko garaira emakumeak ahulduta iritsi ziren eta, ikerkuntza gehien araberara, gizonak izan ohi ziren armak hartu zituztenak beren jabetzak defendatzeko.

Aldiz, *Gizon indartsuak, emakume ahulak?* dokumentalak emakume gudari baten eta beste hainbat aurkikuntzatik abiatuta kontaketa unibertsalaren errebisio kritiko bat proposatzen du genero rolei dagokienean.

Maria Encarna Sarahuja ikertzaileak honela erakusten du errebisio honen beharra:

“Todo parece haber sido lógico e inevitable, donde no hubo posibilidad de otras estrategias que permitiesen la inclusión de los hombres en células sociales de madre-hijos/as sin tener que recurrir al poder coercitivo, imposición que además da la sensación de que fue la única salida para el desarrollo de la humanidad” (Sarahuja, 2002, p.106)¹.



¹ Sarahuja Yii, M.E. (2002). *Cuerpos sexuados, objetos, y prehistoria*. Madrid: Cátedra.



**FILM-DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK
IRAKASLEAK IRAKURTZEKO**



Proposamen didaktiko honek funtsezko bi gaitasun indartzea du helburu. Batetik, ikusitako pelikula beraren ulermena: filmak jorraten dituen gaien identifikazioa eta dokumentalak aurrera agina ahala azaleratzen doazen ondorioen ulermena. Bestetik, filmean jorraten diren gaien inguruko hausnarketa propioa egin eta elkarriketara eramateko gaitasuna.

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutzak, sinesmenak, aurreiritziak eta bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrekinekin konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu. Aurrera pauso horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz. Gida honen helburua da, gazteek duten pentsatzeko gaitasunari lekua ematea, gaiaren inguruan sakontzeko eta hausnartzeko.

Orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa partehartzailea eragiteko, eta zeinbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko balia ditzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzaileria sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:

BEHATU (arretaz ikusi eta entzun):

Dokumentala ikusi ondoren... badago zerbait interesgarria iruditu zaizuna?
Entzun edo ikusi duzunaren arabera, zerbait deskubritu duzula esango zenuke?
Entzun edo ikusi duzunaren arabera, bada zerbait harrigarri iruditu zaizuna?

IKERTU:

Nola jakin dezakegu...? Nola bila dezakegu...?

ARRAZOIAK ESKATU:

Ze arrazoi duzu honako hori esateko?
Zerk eramaten zaitu hori pentsatzera?

INTERPRETATU:

Nola ikusten duzu zuk egoera / gertakari hori?
Norbaitek ba al du ikuspuntu ezberdin bat?
Hori baieztatzen duzunean,... esan nahi al duzu?





**PELIKULA-DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK
IRAKASLEAK IRAKURTZEKO**



HIPOTESIAK FORMULATU:

Zer azalpen izan dezake honako honek...?
Zergatik gertatu ote da...?
Ba al ditugu frogak honako hau... baieztatzeko / ezeztatzeko?
Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU:

Zein izan daiteke horren kausa?
Hori gertatzen denean, zein(zeintzuk) da(dira) ondorioa(k)?

ANTZEKOTASUAK ETA EZBERDINTASUNAK BILATU:

Zer dute amankomunean ...?
Zerk egiten ditu a eta b ezberdin?

IRIZPIDEAK EZARRI:

Zer irizpide ari zara erabiltzen hori baieztatzeko / ezeztatzeko?

BESTE BIDE BATZUK BILATU:

Beste modu batera azaldu dezakegu...?
Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?
Zein beste modutara esan/egin/pentsatu daiteke hori?

DEFINITU:

Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?
Zein hitz erabiltzen dugu, deskribatzen ari izaren egoera/
ekintza hori izendatzeko?

ONDORIOZTATU:

Baieztapen hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?

LABURTU:

Hitz gutxitan azal dezakezu...?
Zure taldekideak esan duena laburtu dezakezu? Nola esango
zenuke..., hitz bakar bat erabiliz?

HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATI K HITZEZKORA ITZULI:

Zer adierazi nahi du keinu horrek?





2

**FILM-DOKUMENTALA IKUSI
AURRETIK IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

**FILMAREN IZENBURUTIK ABIATUTA
ELKARRIZKETARAKO GIDA**

Gizon indartsuak, emakume ahulak? izenburu esanguratsu eta zirikatzailetik abiatuta lehendabiziko elkarrizketari ekingo diogu, ikasleek ikusiko duten filmaren inguruan beren hipotesiak bota ditzaten.

- Izenburuak zer iradokitzen dizu?
- Izenburuari erreparatuta filmaren gaia zein izan daiteke?
- Zer dela eta uste duzu jarri dizkiotela filmaren izenburuari galdera ikurrak?
- Historiaurrean (Paleolitikoan, Neolitikoan) pentsatzen baduzu, zein irudi datorkizu burura?



**ARIKETA
PRAKTIKOA:
AURREIRITZIEKIN
JOLASEAN.**

**GARAIKO
EGINBEHARRAK
ETA LANAREN
SEXU BANAKETA**

Ariketa honekin ikasleek historiaurreari buruz daukaten irudian gehiago sakontzen saiatuko gara. Horretarako, garaiko giza komunitateetan zeuden eginbeharren zerrenda bat osatuko dugu denon artean (ehizatu, fruituak bildu, lurrak landu, uztak jaso, haurrak zaindu, arropak egin, gerran borrokatu, labar-pinturak margotu...) Behin zerrenda osatuta, eginbehar bakoitza sexu bati egokituko diogu denon artean. Modu honetan, elkarrizketa sustatuko da eta norberak bere (aurre) iritzia defendatu beharko du zerrenda osatu ahal izateko. Ateratako zerrenda kopiatu edo argazki bat atera, filma ikusi ondorengo solasaldian beharko dugu eta.

Behin zerrenda osatuta, azken galdera eta elkarrizketa batekin emango diogu amaiera ariketa honi: Egin dugun zerrendatik, zein iruditzen zaizu zela komunitatearen biziraupenerako eginbehar funtsezkoena?



**FILM-DOKUMENTALA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**SOLASALDIA: FILMA BERARI BURUZKO LEHEN
IRITZIAK ELKARBANATU**

Dokumentala behin ikusita, honi buruzko lehenengo iritziak elkarbanatuko ditugu. Sentitzen duguna edo harritu gaituenari buruz hizketan hasi gaitzke. Ikasleak elkarrizketara bultzatzeko irakasleak honako galderak jar ditzake mahai gainean:

- Nola definituko zenuke hitz batean edo hitz gutxitan dokumentalak eragin dizun sententzia, sentimendua edo gogoeta?
- Dokumentalaren zein pasarte da gehien interesatu zaizuna eta zergatik?
- Dokumentalak ez badu zure interesa piztu, zergatik uste duzu izan dela?
- Dokumentalaren formatua, non fizikiozko sekuentziak, elkarrizketak eta narratzailea nahasten diren, egokia iruditu zaizu? Ezezko kasuan, zein formatu izango zen aproposagoa dokumental honentzako?



**FILMAK JORRATZEN DUEN
TESTUINGURU HISTORIKO ETA
SOZIALARI BURUZKO GOGOETA**

Filma ikusi aurretik egindako zerrenda berreskuratuko dugu, non historiaurreko komunitateek zituzten eginbeharrak sexuaren arabera sailkatu ditugun, eta ikusgai izango dugu proposamen didaktikoa burutzen dugun bitartean. Modu honetan, aurre-iritzitik iritzira pasatzeko ariketa egin ahal izango dugu.

Dokumentalean jorratzen diren gaiak banan-bana lantzen hasi aurretik, testuinguru historiko eta sozialaren inguruan gogoeta orokor batzuk egingo ditugu ikusitakoaren harira. Ondorengo galdera sorta jarraitu dezakegu:

- Dokumentala ikusi ondoren, zertan aldatu da zure historiaurreari buruzko irudia? Zenituen aurreiritziak zertan aldatu dira?
- Nolakoa uste duzu zela historiaurreko gizon eta emakumeen arteko harremana? Historiaurreko aro ezberdinetan (Paleolitikoa, Neolitikoa, Brontze Aroa...) harreman hori aldatzen joan zela uste duzu? Nolakoa izan zen zure ustez harremanaren eboluzioa?
- Zein antzekotasun eta zein ezberdintasun ikusten duzu orduko eta oraingo gizon-emakume harremanetan?
- Iruditzen zaizu historiaurreko aro ezberdinetan gizon eta emakumeen arteko elkar menpekotasuna zegoela? Egotekotan, nork zuen menpekotasun handiagoa bestearekiko?
- Menpekotasun harreman hori, egotekotan, zertan dago gaur egun?



**FILM-DOKUMENTALA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**FILMAK JORRATZEN DITUEN GAI NAGUSIAK
BANAN-BANA LANDU:**

Dokumentalak, betiere genero ikuspegia galdu gabe, ondorengo gaien inguruko gogoeta proposatzen du: elikadura, sorkuntza artistikoa, gatazka/borroka eta, hauen gainetik, sexuen arteko berdintasun-ezberdintasunak. Alde batetik, gai hauen inguruan dokumentalak eskaintzen dituen ideiak eta ondorioak mahai gainean jarriko ditugu eta, ondoren, gai bakoitzari buruzko gogoeta propioak eraikitzen saiatuko gara. Dokumentalean esandakoak freskatzeko filmeko aipu batzuk euskarri bezala erabiliko ditugu (altuan irakurri gai bakoitzari ekin aurretik).


ELIKADURA:

"Neolitikoaren hasieran gizon, emakume eta hurrek elikadura berdina zuten"

"Neolitiko amaieran eta Brontze Aroan gizonek elikadura ona zuten. Aldiz, hezurren analisia eginda, emakumezkoek gabezia nabarmenak zituztela jakin dezakegu (...) Aldi berean ikusi dugu garai honetako gizon eta emakume artean tamaina desberdintasuna areagotu egin zela"

"Gizarte sedentarioetan eta gaur egungo Afrikako giza-talde batzuetan, elikagaien ehuneko laurogeia emakumeak lortutakoa da"

- Zein da dokumentalak elikadurari dagokionean azaltzen duen ideia nagusia?
- Nola pasatzen da elikadura berdintsu batetik Neolitiko hasieran elikadura desberdin batera Neolitiko amaieran eta Brontze Aroan?
- Gizon-emakume desberdintasun prozesu hau ekidin zitekeela uste duzu gauzak beste modu batera eginda? Nola?
- Gizarte sedentarioak zein aldaketa dakartza elikaduraren arloan? Berdintasunarekiko zein abantaila eta desabantaila dakartza elikadura sistema berriak?





PELIKULA-DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

- Dokumentalean ikusi eta entzundakoaren arabera, zer esanahi dute historiaurreko sorkuntza artistikoak? Zer errepresentatzen zuten bai kobazuloetan margotutako animaliek eta harrizko emakume formako figurek?
- Emakumezko figuretan, zein xehetasunetan jartzen dute arreta gehien dokumentalean agertzen diren adituek?
- "Venus"ak modu errealistan eginak baziren, zer dela eta zituzten emakumeek halako gorpuak?
- Dokumentalean azaltzen diren argumentuekin ados zaude? Kobazuloetako margoak gizonen lana izan zirenekin ados zaude? Hala ez bada, arrazoitu zure erantzuna.

SORKUNTZA ARTISTIKOA:

"Aditu gehienen ahotan dago gizonak egin zituztela kobazuloetako margoak. Gizonak ehizatzen bazuten, beraiek izango ziren animala horien errepresentazioak sortuko zituztenak"

"Harrizko emakume figurak ("Venus"ak) oso modu errealistan eta naturalistan egindakoak direla uste dugu"

"Azken boladako joera feministatik datozen historiaurreko arteari buruzko interpretazio berriak interpretazio klasikoaren akats berdinetan erortzen ari al dira?"



GATAZKA / BORROKA:

"Jabetzak dituzun momentutik beste batzuk hauek kentzen saiatzera etorriko dira. Momentu horretan indar fisikoa oraindik eta garrantzitsuagoa bilakatuko da"

- Dokumentala emakume gudari baten existentzia aipatzen hasi eta bukatzen da. Filmean, fikziozko sekuentzia bati esker, borrokan ikusten dugu, zaldi baten gainean, beste gizon batzuen aurka. Aurkikuntza honetatik abiatuta, zein da dokumentalak proposatzen duen hipotesia edo ideia emakume gudarien inguruan?
- Zergatik uste duzu dokumentalean aipatzen den emakume gudariaren kasua salbuespen moduan hartzen dela?
- Uste duzu etorkizunean emakume gudari askoren berri izango dugula aurkikuntza arkeologikoei esker? Eta batez ere, arkeologoen eta gizarte osoaren begiradaren aldaketari esker?
- Emakumeek gudarako beharrezkoak diren prestakuntzak dituztela edo eduki ditzatela uste duzu? Erantzuna baiezkoa bada, zergatik uste duzu gaur egungo armadetan horren emakume gutxi dagoela?



**PELIKULA-DOKUMENTALA
IKUSI ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

SEXU-ROLAK. BERDINTASUN-DESBERDINTASUNAK:

“Emakumearen gorpua betidanik ahula izan denaren ideia deusezten ari gara gaur egun. Uste da historiaurreko zenbait garaietan (Paleolitikoan zehar) emakumeak gaur egungo emakume olinpikoak baina indartsuagoak zirela”.

“Neolitikoko iraultza bi modutara begiratu daiteke: asmakuntza teknikoak eta gizartearen konplexutasuna goraipatuz, edo ekarri zuen emakumearen ahulezia eta hierarkizazioa kritikatzuz”.

“Jakin dugu Brontze Aroan gizon eta emakumeek hiltzeko modu desberdinak eduki zituztela, beraz, pentsa dezakegu bizitzeko moduan ere desberdintasunak izan zirela”

“Emakumeek aurrerapen teknikoetan egindako ekarpenak frogatuak daude, baina inoiz ez zaie eman garrantzia handirik”

“XIX. mendeko zientzialariek esaten zuten, beren pribilegioak mantentzearen, emakumeen leku naturala etxean zegoela”.

“Gaur arte emakumea sexu ahultzat jo da, zergatik?”



***BA AL ZENEKIEN?**

Charles Darwin zientzialari ospetsuak gizona sexu indartsua eta emakumea sexu ahula zirela baieztatu zuen.

- Dokumentalean eskaintzen diren gizon-emakume berdintasun eta desberdintasunaren inguruko datu eta hausnarketek zer dute amankomunean?
- Dokumentalean ikusitakoa eta gero, uste duzu Neolitikoko iraultzan emandako gizon eta emakumeen arteko desberdintasun prozesua saihestu ahal izan zela? Norri edo zerri leporatzen diozu gauzak uste den moduan gertatu izana?
- Filma ikusi aurretik zenuen historiaurreari buruzko irudia zertan aldatu duzu? Zure aurre-iritziak zerri leporatzen dizkiozu?
- Dokumentala ikusi aurretik egindako zerrendan zer bait aldatuko zenuke?
- Neolitiko amaieran emandako desberdintasun prozesuak gaur egungo gizartean islada daukala uste duzu? Zertan? Azaldu eta argudiatu.



**PELIKULA-DOKUMENTALA
IKUSI ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**AMAITZEKO:
TALDEAN EGITEKO ARIKETA**

Jakina da historiaurre bezala ezagutzen duguna aurkikuntza oso zehatz batzuetatik abiatuta eraikitako “fikziozko” kontakizun sorta bat dela, ez baitago gertakizunak zehazki idatzirik azaltzen dituen dokumenturik. Filma ikusten ikasitakoarekin eta egin ditugun hausnarketez baliatuz, historiaurreko nahi dugun aroan kokatutako “fikzio” txiki bat irudikatu eta idatziko dugu, taldeka. Istorioa amodiozkoa, komedia, drama, beldurrezkoa edo nahi den modukoa izan daiteke.

Eraikiko dugun fikzio txiki horrek honako ezaugarriak eduki behar ditu:



- Istorioan gizonezko eta emakumezko protagonistak agertu beharko dira
- Istorioa ekintzen deskribapenekin eta pertsonaien arteko “elkarrizketekin” aurkeztu behar dugu. Gogoratu Paleolitiko eta Neolitikoan gizakiek hitz egiten zutela baina ez gaur egungo lengoaiarekin.
- Istorioak dokumentalean jorratzen diren gaietako batekin edo gehiagorekin zerikusia izan beharko du.
- Laguntza moduan, ikusitako dokumentalean azaltzen diren fikziozko pasarteak gogoratuko ditugu. Pasarte hauek gure istorioak espazio zehatz batean (kobazuloan, basoan barrena, establimentuan...) kokatzen lagunduko gaituzte.

Behin gure istorioak eraiki eta idatzita, besteekin elkarbanatuko ditugu.